

NATOn erasoez babesteko, serbiarrek giza ezkutak baliatzen dituztela dio UNHCRk


Jende hilketa batzuen lekukotasunak ere jaso ditu errefuxiatu albaniarrengandik

Erredakzioa / Baiona

NATOn aire erasoak eragozteko xedez, serbiarrek Kosovoko albaniar zenbait giza ezkutu gisa atxikitzen dituztela aditza eman du Nazio Batuen Errefuxiatuentzako Komisariatu Nagusiak (UNHCR). Erakunde honek ziurtatu du, halaber, serbiar indarrek egindako jende hilketa eta bestelako izugarrikerien berri jasotzen jarraitzen duela, ihes egindako albaniar errefuxiatuen lekukotasunez.

MUNIZIO gordailu baten goiko solairuan, Prizren-en (Kosovo hegoaldean), albaniar emakume eta haur multzo bat atxiki dituzte serbiarrek, eraikin hau NATOk bonbaketatik babesteko gisan. Informazio hau Kris Janowski UNHCRko eledun batek zabaldu zuen atzo Genevatik (Suitza). Morinako muga igarogunean (Albania) bildutako lekukotasunetan oinarritzen zen informazio hori.

Giza ezkutu gisa baliatuak diren emakume eta haur horiek, antza denez, joan den astean euren senar edo anaietatik bereiziak izan zirenak dira. Ezen, Morinako muga igarogunera hirurogei bat gizonezko eta mutil etorri ziren, emakume eta haurrik gabe. Gertaera honek harri-dura handia eragin zuen UNHCRko eta tokiko albaniar agintarien artean, zeren eta orain arteko kasu askotan, emakume, haur eta adineko errefuxiatuak ziren gehiengo handian Albaniarat zein Mazedoniarat heltzen Kosovotik



FEHIM DEMIR / EPA

Errefuxiatu gaixo bat erietxera daramatela, atzo, Mazedoniako Stenkovac eremuan.

ihesean. Indar serbiarrek gizonezko gazteak iheslari ilaretatik bereizten zituzten eta beraiekin eramaten. Gazteen suerteaz, ordea, kezka handiak badaude, eta lekukoen arabera, hilketa masiboak egin dituzte serbiarrek.

Zenbait informazioen arabera, gizonezko hauek giza ezkutu gisa erabiltzen dituztela esan da, baina serbiarrek atzerriko begiraleak eta lekukoak oro haizatu egin dituztenez, kontakizun hauek ez dira oraingoz erabat frogatuak izan.

Salaketa fidagarriak

Frogarik ez egon arren, UNHCRk dio, haatik, erabat fidagarritzat jo dituen lekukotasun ugari jaso dituela eta

hauek, zalantza oso gutxirekin, erakusterat ematen dutela gauza ikaragarriak gertatzen ari direla Kosovon. Jugoslaviako armada eta indar serbiarrak Kosovotik albaniarrek haizatzen hasi direnetik, Albaniarat zein Mazedoniarat etorri diren errefuxiatu askok eta askok aditza eman dituzte jasandako edo ikusitako izugarrikeriak, hots emakume bortxaketak, etxe erreteak, iheslarien ondasun gutxiak lapurtzea, jipoitzeak edota gizonezko andanaren erailketak.

Hilketa hauei dagokienez hain zuzen, UNHCRk errefuxiatu zenbaitengandik jasotako kontakizunak zabaldu zituen igandean. Esate baterako, nazioarte erakundeak aipatu zuen Lipljaneko

herrialdean, Pristina Hegoaldean, 60 lagun inguru hil egin zituztela talde paramilitar serbiarrek. Zehazki, Hallac y Vogel herriko bost errefuxiatu ziurtatu zuten 21 lagun hil zituztela serbiarrek, iragan apirilaren 18an. Geroxeago, milizia serbiar bera Ribar y Vogel herrira joan zen eta han beste 19 pertsona hil zituzten. Horien artean, gainera, aurretik bortxatu egin zituzten bost emakume.

Silovi herritik ihes egindako beste errefuxiatu albaniar batek kontatu duenez, berriz, talde paramilitar serbiar bat sartu zen herrian apirilaren 16an eta 180 gizonezko inguru bildu eta jipoitu egin zituzten, hauetatik 16, azkenean, tiroz erail zituzten.

NATOk 1.800 soldadu gehiago helduko dira Mazedoniara

1.800 soldadu gehiago iritsiko dira Mazedoniara bederatzi egun barru. Soldaduak britainiarrak izango dira eta Salonicatik (Grezia) joango dira. Aurretik bi tanke eta 40 blindatu britainiar iritsi dira. Alemaniak, berriz, 65 ibilgailu bidali ditu, laster joango diren 500 soldaduen etorrera prestatzeko.

Belgradeko kate pribatu guztiak estatalaren esanetara

Telebista estatalaren egoitzari NATOk eraso egin eta gero, Belgradeko telebista kate pribatu guztiak estatalaren esanetara jarri dira. Erasoa joan den ostiralean gertatu zen eta gutxienez zortzi langile hil ziren.

Kazetari atzeritarren atxiloteta salatu dute

Mugarik Gabeko Erreportariak gobernu kanpoko erakundeak salatu egin du Jugoslaviak atzerriko hiru kazetari atxilotu dituela. Horiek berehala aske uzteko exijitu du gainera. Hiru atxilotuak dira: Pit Schnitzler, Eric Vailant eta Antun Masle.

Gurutze Gorriaren presidentea EEBetako hiru soldaduei bisitan

Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeko presidente Cornelio Sommarugak atzo bisitatu zituen hiru soldadu estatu batuar, Serbiak martxoaren 31n atzeman baitzituen. Une labur batean hirurekin hitz egiteko aukera izan zuen, baina bisita ez zen Genevako Itunaren arabera izan, bakarka hitz egiteko aukera ez zuelako izan.

Erbesteko lehen ministroak UCK-ren jarrera gaitzetsi du

UCK Kosovoren Askapenerako Armadak mendebal Europako gazteak erreklutatze duen politika salatu du erbesteko lehen ministro Nujar Bukoshik. Bere hitzetan, gazteek ez dute inoiz borroka egin eta berehala «eroriko» dira serbiarren armen aurrean.

Albanian, telebistek sakabanatuak bilatzen laguntzen dute

KOSOVOTIK ihes egin beharrraren kaosean eta serbiarrek egindako bereizteengatik edo Mazedonian Poliziak izan zuen jokaeren ondorioz, albaniar familia ugari sakabanatuak egon dira. Egoera honen larritasuna areagotu egin du, halaber, errefuxiatuen kopuru itzelak, zeren eta joan den martxoaren 24az geroztik, Kosovoko 600.000 albaniar ihes egite-

rat behartuak izan baitira.

Sakabanatutako familien berrosatzen nolabait laguntzeko, UNHCRk, bere ardurari dauzkan kanpamendu guztietan, oihal aterpe bat baliatzen du euren senideen bila dauden albaniarrei harrera egiteko eta galduta dauzkaten izenak erregistratzeko. Alabaina, modu honi baino konfiantza handiago egiten diete errefuxia-

tuek Albaniako telebista pribatu zenbaitek eskaini dieten laguntzari. Hala, Super Skaj kateak —Tetovo herri-
tik emititzen du—, egunean hiru aldiz, 5.000 desagertu-
ren zerrenda bat adiarazten du. Oraingoz, haatik, ondorio pozgarri nahikoa gutxi dago, zeren eta Muslim Aziri-Djura Super Skajen jabeak zehaztu duenez, 70 familia dira berrosatu, desa-

gertuen zerrenda telebistaz plazaratze honi esker. Kontutan hartu behar da, hala ere, Super Skajek ez duela egunean lau orduz baizik emititzen, Tetovo, Gostivar, Struga, Kumanovo eta Skopje inguruneetara. Albaniako beste bi telebista pribatuak ere, Koha eta Art kateak, desagertuen bilatzeko zerbitzu berdintsua eratu dute.